

Juan San Martín

Euskaltzaina eta idazlea

Giza eskubideak

Euskal Herriaren Herkidegoa bere zuzenbidez osotasunera garatu ezinak ekarri digu burujabetzaren premia eta eskaria

■ 50 urte bete dira Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenetik. Kontutan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla. Horrela dio bere haseratik, guztion jakinbiderako, oraintsu barreiatua izan den liburuxka batek.

Asmo horren oinarrian ikustekorik aski izan zuten bere garaian Franklin Delano Roosevelt (1882-1945) Estatu Batuetako lehendakari izan zenaren iritziek. Hura izan zen 1941. urtean Churchill-ekin batean Atlantikako gutun aipatu hura idatzi zuena. Nondik bideratu zuten munduko azken gerrateari bukaera emateko bidea.

Guk, frankismo garaian, klandestinoki eskuz esku prestaturik erabiltzen genuen Roosevelt-en semeak, aitaren heriotza ondok, idatzi zuen liburu hura: Hala nahi zuten gure aitak, bai gerran eta bai bakean. Non erakusten zuen gizonaren humanismo heldutasuna, bere iritzietan hainbeste aldiz aitortuz eta errepikatuz, gizon eta herri menperatuak dauden artean, egiazko bakea ezinezkoa zela. Gizon zein herri, bakoitzak bere burujabetza lor zezan. Guri, diktaduraren menpetasun hartan, itxaropen argi printza pizten zigun.

1948ko abenduaren 10ean onarturiko aitorten orokor hark, Espainian lehen argitalpen bat izan zuen 1968an, hogeigarren urtearen ospakuntzaz. A Cruña-ko Agrupación Cultural O Facho erakundearen babespean, J.A. Gonzalez Casanova Santiago de Compostelako Unibertsitatean Dereito Politico katedradunaren hitzurrez, Espainiako lau hizkuntzetan inprimaturik (Galegoz, Katalanez, Gazteleraz eta Euskaraz) Editorial Moret-ek agertua. Euskarazko testua, *Giza-Eskubidegai guztien aitorkizuna* zeritzana, Nikolas Ormaetxea *Orixe* zenak egina. Baina, nork pentsa zezakean holako lan bat, Franco-ren zentsuragatik bahitua izango zenik? Ba, hala da. Eta oraindik hor ari dira zenbait txoriburu esanez, gure hizkuntzak ez duela izan zapalkuntzarik? Lekukotasuna nahi duenak, hor du, besteak beste, agiri berezi bat. Hemen gaztelera soilak bakarrik izan zuela eskubidea eta beste hiru hizkuntzek ez. Badakigu oso aspaldikoa dela, komeni zaienaren arabera, batzuren ezjakintasuna edo jakin nahieza.

1968an, argitara berri banatu ziren ale batzuk baizik ez dira salbatu. Horieta bat, galego adiskide batzuri esker, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekarako lortu nuen eta han dago diodanaren lekuko.

Zori hobea izan zuen demokraziaruntzako trantsizio edo igarapen garaian ondok, 1984. urtean, Amnesty International erakundearen babespean Joaquín Ruiz-Giménez-en aurkezpenez argitaratu zenak. Marrazkilarien edergarritasun eta artikuluen testu osoa Espainiako lau hizkuntzetan. Madrilen argitaratu zen eta euskarazko testua neronek prestatua behar izan nuen. Bost mila eta berrehun ale

argitaratu zituzten eta handik lasterrera berrargitaratua izan zen.

Arartekotzan nengoela, azken urtean, Frantziako konsulak Donostiatik deitu ninduen, elkar mintzatzeko eskeriz. Eta hala bete nuen, Gasteizen elkarrekin bazkalduz. Nire iritzia jakin nahi zituen nonbait eta nire karguaren arabera nola jokatzin nuen adierazi nioen. Baina, berak galdetzen zidan gure herriaren burujabetzaz zer uste nuen, zeren abertzale asko horren eske ari zirenez. Nik agertu nion nire egitekoa zer zen, Administrari-

rraitzeko neurriak hartuko balira; baina hortarako Frantziak bere Konstituzioaren 2. artikulua aldatu beharra duela eta Espainiakoak 3. artikulua. Itxuraz, frantseseri Canadako Quebec-erako on zaiena, zergatik ez berain Estatu barnerako? Baina, alperrik, ez zuen nahi ulertzetik. Gaineratzen nioen esanaz, herriak bere izate naturalean errespetatzen ez badira, oso normala dela horien aldetik burujabetzaren eskaria. Zeren mundua orotarikoa denez, bakoitzak beretik osatzea dela legezkoena elkarkidetzan biziko bagara.



ROBERTO FABELLO

tzaren aurrean hiritarren alde legea zuzen betearaztea, baina ez nire iritzia agertzea. Hala ere, behin eta berriz, nire iritzia jakin nahi zuela.

Nire iritzia, esan nioen, 1948an onarturiko Giza Eskubideen Aldarrikatze hartan mugatzen zela. Frantziak beste nazio batzuekin onartua, eta han zetorrela edozein pertsona zein taldek burujabetzarako eskubidea zuela. Ez zekien zer erantzun ere, eta eman zidan erantzun bakarra honako hau izan zen: Giza Eskubideen onarpena beste garai batekoa zela, haiek beste denbora batzuk zirenez.

Nire erantzuna ordea, gerrate izugarri baten ondok onartua baliagarri ez bada, ea beste gudu baten zain egon beharra ote dugun. Demokrazia herriaren burujabetza da eta hortarako ez dago grekeraz asko jakin beharrik. Ni konforme nengoela gure hizkuntza, European diren hizkuntzetarik zaharrena, legez bizirik ja-

Haruntzago joanaz nioen, nik gazte-raren aurka ez nuela ezer, nire bigarren hizkuntza nuela eta maite ez ezik beharrezko. Hala ere, etorkizunari begira, hirugarren baten premian geundela zientzia, teknika berri eta harreman zabalagotetan hain beharrezko ikusten nuen ingelesarena adibidez. Aurretik Quebec aipatua nioenez, ez zuen hain gogoko hartu.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak bere sarrerako hitzurrearen azken hitzetan argi dio: «Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzen bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, ere eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezke ziurtatzeko, bai kide Estatu-tak herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere».

Aldarrikapen hori edozein hiritarrek

zentsuz ulertzeko eran egina da, baina zenbait jurista, bakoitzak bere gogoaren erara, analisiak egiten ari dira. Adibide bat jartzekotan, hara hor Javier Praderak *El País* egunkarian 1998ko azaroaren 22an idatzi zuena: «Análisis Nacional. Autodeterminación Vasca» deritzan artikulua batean. Non esaten zuen, besteak beste, Sabin Intxaurrea Eusko Jaurlaritzako Justizia kontseilariak, gehiketaz nahasten dituela gizabanakoaren eskubideak talde edo kolektiboekin. Baina, jurista izan beharra ote dugu sarrerako hitzok ulertzeko? Herriarentzat idatzi ez ote?

Bestela, Aldarrikapenaren 2. artikuluko lehen zatian ikus zer dioen: «...eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo gizarte-ko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik». Euskaldunok giza-kolektibo bat ez ote gara? Eta, jatorriz, bereizkuntza hau Europako naturalez emana ez ote? Hau da, gure herriaren euskaldun izakera berezia eta jatorria, gaur egun dirauten politika taldeak asmatu baino lehenagotik, noski.

Giza Eskubide horiek herriarentzat direnez, herriak ulertzeko eran idatziak daude. Horregatik, bakoitzaren zentzua aski zaigu, jurista nahasleak alde batera utziz.

Hara bestela Aldarrikapen horren 22. artikulua zer dioen: «Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurtasun izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontutan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomia, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa».

Baina, nork ukatuko digu kulturaren tresnarik baliagarriena hizkuntza bera ez denik? Horregatik dator 26. artikulua hiru-ugarren zatian: «Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko». Eta, bukatzeko, 30. artikuluan irakur daiteke beste honako hau: «Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatze-ko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik».

Hortik atera kontuak, Giza Eskubide Aldarrikapen Unibertsala, ez dela *pikapleito*-en arteko ezatabaidetarako. Baizik, juristen esku uzteko baino askozaz serioagoa dela. Herriaren zentsuzko jokatubideak baizik ez gaitu eramango demokraziaren bidera. Hortarako egina denez Aldarrikapena.

Legez onartua izanarren, baina hainbeste urtetan elkar ulertu ezinaz, Euskal Herriaren Herkidegoa bere zuzenbidez osotasunera garatu ezinak ekarri digu burujabetzaren premia eta eskaria. Izan ere, historian zehar, berez hain inperialista izan diren Estatuentzat, ulerkaitza den eskaria, noski. ■